



## ABONO EGOKITUA

### 3. FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresak ondo funtzionatzeko ingeniari agronomo bat kontratatuko dugu lurra aztertzeko eta lur bakoitzak dituen beharrak identifikatzeko. Ingeniari honen lana ezinbestekoa izango da lur bakoitzaren beharrak berak identifikatuko dituelako eta gure produktua hortan oinarritzen delako.

Ingeniari agronomoak lur bakoitzaren beharrak aztertu ondoren, abonoak ekoizten dakien norbait ekarriko dugu. Berak esango digu, abonoa nola ekoitzi behar dugun, eta ze lehengai beharko ditugun gure abonoa ekologikoa izan dadin.

Abonoa ekoizteko konpostan oinarrituko garenez, konpostaren erabilera kontrolatzen duen norbait ere kontratatuko dugu.

Osagaiak identifikatu ondoren, hornitzaileak lortuko ditugu. Hornitzaileak gertukoak izan daitezten saiatuko gara, ahalik eta merkeen ateratzeko. Hornitzaileen laguntzarekin gure abonoa ekoizteko beharrezko materiala eskuratuko dugu.

Behin osagaiak eskuratu ondoren, abonoak ekoizten dakienarengana joango gara eta osagaiak emango dizkiogu berak eta bere langileek abonoa ekoiztu dezaten gure laborategian.

Abonoa ekoizita dagoenean, nekazariari abonoa entregatzeko transportista bat kontratatuko dugu bezeroen etxeetara eramateko.

Esan bezala, gure enpresa hazten badoa, animalientzako pentsua ere ekoiztuko dugu eta nazioartean hazten saiatuko gara.